Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko ekainaren 3a, ostirala — 105 — Viernes, a 3 de junio de 2016



## EIBARKO UDALA

*Udal-Euskaltegian egon daitezkeen beharrak betetzeko euskara-irakasleen lan-poltsa bat sortzeko lehiaketa: oinarri arautzaileak eta deialdia.*

Gobernu-batzarrak, 2016ko maiatzaren 27an, honako erabaki hau hartu zuen:

Udal-Euskaltegiak ez du lan-poltsarik gerta litezkeen langile-beharrei aurre egiteko; horregatik, beharrezkoa da lan-poltsa bat sortzeko deialdia egitea.

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. g) artikuluan ezarritakoaren arabera, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan, lanpostuak betetzeko deialdia eta haren oinarriak onestea Alkateari dagokio. Gure kasuan, eskumen hori Gobernu-Batzarraren esku utzita dauka Alkateak.

Aipatutako araudiak jasotako ahalmenak aplikatuta,

HONAKO HAU ERABAKI DA

*Lehengoa.* Euskaltegiko irakasleen lan-poltsaren deialdia onartzea.

*Bigarrena.* Deialdiaren Oinarriak onartzea; horiek Erabaki honen eranskin gisa jasota daude.

*Hirugarrena.* Oinarri osoak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko erabakia hartzea.

*Euskaltegiko irakasleen lan-poltsa bat sortzeko deialdiaren oinarriak.*

*Lehena. Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea lan-poltsa bat sortzea da, lehiaketa bidez, Euskaltegiko irakasleen ordezkapenak egiteko.

Lanpostuak ezaugarri hauek ditu:

— Titulazioa: Unibertsitateko diplomatura, lizentzia, gradua edo horien baliokidea.

— Taldea: A2.

— Maila: 13 UDALHITZ.

— Hizkuntza-eskakizuna: HAEEko 4. HE; derrigorrezkoa.

Eguneko lanaldia Udalak urtero erabakitzen duena izango da, zerbitzuaren izaera eta beharrizan espezifikoak kontuan hartuta betiere.

*Bigarrena. Lanpostuaren egitekoak.*

Lanpostuak honako egiteko hauek guztiak izango ditu:

— Euskara eskolak ematea.

— Eskolen edukiak programatu eta prestatzea, horretarako egokienak diren irizpide pedagogikoen arabera.

— Ikasleei agindutako lanak jarraitu eta zuzentzea.

## AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Bases reguladoras y convocatoria de un concurso para la creación de una bolsa de trabajo de profesores/as de euskara que cubra las necesidades que surjan en Udal Euskaltegia.*

La junta de gobierno de fecha 27 de mayo de 2016 ha adoptado el siguiente acuerdo:

El Euskaltegi Municipal no cuenta con una bolsa de trabajo para hacer frente a las diferentes eventualidades que pueden surgir con el personal, con lo que es necesaria la convocatoria de una bolsa de trabajo.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 21.1. g) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en su redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, la aprobación de la convocatoria y de las bases para la provisión de puestos de trabajo corresponde al Alcalde. En nuestro caso, esta competencia la tiene delegada en la Junta de Gobierno.

En aplicación de las facultades recogidas en la normativa citada,

SE ACUERDA

*Primero.* Aprobar la convocatoria de bolsa de trabajo de profesores de euskaltegi.

*Segundo.* Aprobar las Bases de la convocatoria, que se incorporan como anexo al presente Acuerdo.

*Tercero.* Acordar la publicación de las Bases íntegras en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Bases de la convocatoria de una bolsa de trabajo de profesores de euskaltegi.*

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

El objeto de las presentes Bases es la convocatoria de un concurso para la creación de una bolsa de trabajo para sustituciones del profesorado del Euskaltegi.

Las características del puesto son:

— Titulación: Diplomatura, licenciatura, grado o equivalente.

— Grupo: A2.

— Nivel salarial: 13 UDALHITZ.

— Perfil lingüístico: PL4 IVAP, con carácter preceptivo.

La jornada de trabajo será la que establezca el Ayuntamiento de Eibar, atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto.

*Segunda. Funciones.*

Son funciones del puesto de trabajo todas las siguientes:

— Impartir clases de euskara.

— Programar y preparar el contenido de cada clase a tenor de las normas pedagógicas más convenientes.

— Control y corrección de las tareas encargadas del alumnado.

EK\CV GAO-I-2016-03921

— Ikasleen eguneroko ebaluaketa jarraitua egitea eta beharrezkoak liratekeen azterketak jartzea.

— Material didaktikoa eta udal euskaltegia ondo erabili eta erabilaraztea.

— Egunero elkarrekiko lotura duen material didaktikoa sortzea ikasleen helburuak lortzeko eta beraien arreta erakartzeko.

— Kanpo ekintzak antolatzea.

— Material didaktikoa antolatu eta sailkatzea.

— Irakasle-Batzaren bilera, bilera pedagogiko, ebaluazio bilera eta koordinazio praktikorako bileretan parte hartzea.

— Euskaltegiaren Kurrikulu-proiektu espezifikoa prestatzen parte hartzea.

— Lanposturako gaitasuna mantentzea profesionalentzako ikastaroetan parte hartuz.

— Euskara maila zehazteko sarrera-probak prestatu eta egitea.

— Material berria antolatu eta banatzea.

— Bere mailari dagozkion bestelako zereginak horretarako prestakuntza jaso badu.

*Hirugarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.*

Honako baldintza hauek bete beharrekoak dira onartua izateko eta, hala balegokio, lehiaketan parte hartzeko:

a) Nazionalitateari dagokionez, baldintza hauetako bat:

a.— Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea.

b.— Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea duen norbaiten ezkontidea izatea, edozein nazionalitate izanda ere, eta betiere zuzenbidez bananduta ez egotea. Halaber, baldintza beretan parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea dutenen ondorengoek, baldin eta 21 urte baino gutxiago badute, edo 21 urtetik gorakoak izan arren norbaiten mendekotasuna badute.

c.— Europar Batasunak sinatutako eta espainiar estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den eremukoa izatea.

Espainiar estatuan bizi ez diren izangaiek, eskabidearekin batera, dokumentazioa aurkeztu behar dute alegatzen dituzten baldintzak egiaztatzeko.

b) 16 urte beteta edukitzea.

c) Unibertsitateko diplomatura, lizentzia, gradua edo horien baliokidea den titulazioa edukitzea. Edozelan ere, onartzekoak izango dira HABEk Euskaltegietako irakasleak homologatzeko egin zituen probak gainditu zituzten irakaslegaiak, 1984ko ekainaren 8ko Aginduan ezarritakoa betez.

d) Laugarren hizkuntza-eskakizuna edukitzea, edo horren baliokidea. Ez da egingo hizkuntz-eskakizuna egiaztatzeko azterketarik prozesuan zehar.

e) Lanpostuari dagozkion lanak egiteko gai izatea, eta lan horietan behar bezala aritzea eragotziko lukeen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea. Baldintza hori dagokion unean egiaztatu beharko du lanpostu batean hastera deitutako izangaiak, azterketa medikua eginda udalak horretarako ezarria duen zerbitzuan.

f) Diziplina-espediente bitartez inongo Administrazio Publikotako zerbitzutik baztertuta edo kanporatuta ez egotea, eta desgaikuntzarik ez izatea (erabateko zein berezi) enplegu edo kargu publikoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, estatu horretan ez edukitzea desgaikuntzarik edo

— Realizar evaluación continua y diaria del alumnado y aplicar los exámenes pertinentes.

— Vigilar el buen uso del material didáctico y la instalación municipal.

— Creación de material didáctico diariamente interrelacionado para lograr los objetivos del alumnado y captar su atención.

— Organizar actividades extraescolares.

— Organizar y clasificar el material didáctico.

— Participar en el Claustro y reuniones pedagógicas, de evaluación y de coordinación práctica.

— Tomar parte en la elaboración del Proyecto curricular específico del euskaltegi.

— Mantener la capacitación profesional con cursos para profesionales.

— Preparar y realizar las pruebas de ingreso para determinación de nivel.

— Organizar y distribuir el material adquirido.

— Efectuar cualquier otra tarea propia de su categoría y para la cual haya sido previamente instruida/o.

*Tercera. Condiciones de las/os aspirantes.*

Para ser admitida/o, y en su caso, tomar parte en el concurso serán requisitos necesarios:

a) Requisito de nacionalidad:

a.— Los nacionales de los Estados Miembros de la Unión Europea.

b.— El cónyuge de los nacionales de Estados miembros de la Unión Europea, cualquiera que sea su nacionalidad siempre que no estén separados de derecho. Asimismo, con las mismas condiciones, podrán participar los descendientes menores de veintiún años o mayores de dicha edad que sean dependientes.

c.— Las personas incluidas en el ámbito de aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el estado español en los que sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

Los aspirantes no residentes en el estado español, deberán acompañar a su solicitud, documento que acredite las condiciones que se alegan.

b) Tener cumplidos 16 años de edad.

c) Estar en posesión de una diplomatura o licenciatura universitaria, grado o equivalente. En todo caso será admisible quien en su día hubiere superado las pruebas de homologación convocadas por HABE para profesorado de Euskaltegi, tal y como se recoge en la Orden del 8 de junio de 1984.

d) Estar en posesión del Perfil Lingüístico 4 o equivalente. No se realizará un examen de acreditación del perfil lingüístico durante el proceso.

e) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas y no padecer enfermedad o defecto físico ni psíquico que impida el desempeño de las correspondientes tareas. Este extremo habrá de acreditarse en su momento, tras un reconocimiento a que será sometido el aspirante que sea convocado para incorporarse a un puesto, en los servicios establecidos a tal efecto por el Ayuntamiento.

f) No estar en situación de separación o despido, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos. En caso de ser nacional de otro estado, no sufrir inhabilitación o situación equi-

EK\CV GAO-I-2016-03921

antzeko egoerarik, ezta estatu hartan Funtzio Publikoan jardutea galaraziko liokeen diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ere.

g) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun- edo bateraezintasun-auziren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.

Izangaiek beteta eduki behar dituzte baldintza horiek deialdian onartuak izateko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta lanpostuaz jabetu arte bete.

Halaber, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen baldintzak, izangai hori prozeduratik kanpo geratuko da, berarekin hitz egin eta gero, eta hautaketa-prozesura deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri, egun horretan bertan.

*Laugarrena. Eskabideak.*

Eskabideak toki hauetako batean aurkeztu behar dira, behar bezala beteta:

a) Pegoran: Eibarko Udaletxeko beheko solairua, Untzaga Plaza z/g, 20600 Eibar.

b) Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legearen 38.4. artikuluak aipatzen duen edozein tokitan, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste edozein autonomia erkidegotako erregistroetan, Estatuko Administrazioaren erregistroetan, probintzietako diputazioen, kabildoen eta uharteko kontseiluen erregistroetan, eta, halaber, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 121. artikuluan aipatzen dituen udalerrietako udaletxeetan.

c) Posta-bulegoetan. Horrelakoetan, betiere aurkezpenepearen barruan, gutun-azal ireki batean aurkeztu behar zaio eskabidea postetxeko funtzionarioari, hark eguna eta zigilua jarri eta ziurtatu ahal izan dezan. Horrela bakarrik ulertuko da eskariak postetxearen bulegoan entregatu ziren egun berberean sartu zirela Eibarko Udal Sarrera-Erregistro Nagusian. Eskabidea bera da zigilatu beharrekoa.

d) Eibarko Udalaren www.eibar.eus egoitza elektronikoaren erregistro elektronikoaren bidez.

e) Aplikagarria den araudiak dioen beste edozein eratan.

Alkate jaunari zuzendu behar zaizkio lehiaketa-oposizioan onartua izateko eskabideak, eta baldintza hauek bete behar dituzte, baztertuak ez izateko:

a) Izangaiek adierazi behar dute Hirugarren Oinarriak eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

b) Egiaztatu egin beharko dira lehiaketa-fasean baloratzekoak diren merituak. Ez dira baloratzekoak izango eskabidearekin batera egiaztatzen ez diren merituak.

c) Izangaiek lanposturako behar den titulazioaren fotokopia aurkeztu beharko dute, edo, bestela, titulazioa lortzeko ordaindu beharreko eskubideak ordainduta dauzkatelako frogagiria. Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztagutuna eduki beharko dute.

d) Izangaiek ekarri beharko dute IVAPen 4. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea dutela egiaztatzen duen agiria.

e) Izangaiek ekarri beharko dute NANaren, AIZaren edo 3. oinarriak ezarritako aurreneko betekizuna betetzen dutela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.

Eskabideak eredu ofizial normalizatuaren arabera aurkeztu behar dira; eredua Eibarko Udalaren Herritarren Zerbitzurako

valente ni estar sometido o sometida a sanción disciplinaria o condena penal que impida en su estado el acceso a la Función Pública.

g) No incurrir en causa legal de incompatibilidad o incapacidad según la normativa vigente, dejando a salvo, el derecho a opción que ésta le otorgue.

Los/as aspirantes deben reunir los requisitos antes de la finalización del plazo de entrega de las instancias de solicitud de admisión en la convocatoria y deberán mantener su cumplimiento hasta efectuar la toma de posesión.

No obstante lo anterior, si en cualquier momento del procedimiento llegara a conocimiento del Tribunal que alguna de las personas aspirantes carece de los requisitos exigidos en la convocatoria, se le excluirá de la misma, previa audiencia de la persona interesada, dando cuenta el mismo día, a la autoridad que haya convocado el proceso selectivo.

*Cuarta. Instancias.*

Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en alguno de los siguientes lugares:

a) En Pegora ubicado en la planta baja del Ayuntamiento de Eibar, Plaza Unzaga s/n, 20600 Eibar.

b) En cualquiera de los lugares previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en concreto, en los Registros de la Comunidad Autónoma Vasca o cualquier otra Comunidad Autónoma, en los Registros de la Administración del Estado, en los de las Diputaciones Provinciales, Cabildos y Consejos Insulares, así como en los Ayuntamientos de los Municipios a que se refiere el artículo 121 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

c) En las Oficinas de Correos. En este supuesto se presentarán en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el/la funcionario/a de Correos antes de ser certificadas, dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro Central de la Ayuntamiento de Eibar en la fecha que fueron entregadas. Es la instancia la que debe estar sellada.

d) A través del registro electrónico de la sede electrónica del Ayuntamiento de Eibar www.eibar.eus.

e) En cualquiera de las restantes formas previstas en la normativa aplicable.

Las instancias solicitando ser admitido al Concurso se dirigirán al Sr. Alcalde, debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

a) Los/as aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base Tercera, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

b) Deberán acreditar los méritos a valorar en la fase de concurso. No serán objeto de valoración aquellos méritos que no se acrediten con la instancia.

c) Los aspirantes aportarán fotocopia de la titulación requerida para el puesto o justificante de haber abonado los derechos para obtener la titulación. En el caso de titulaciones extranjeras, se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

d) Los aspirantes aportarán documento justificativo de la acreditación del perfil lingüístico 4 del IVAP o equivalente.

e) Los aspirantes aportarán fotocopia del DNI, NIE o documento que acredite que reúne el primer requisito fijado en la base tercera.

Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado que será facilitado en la Servicio de Atención a la Ciudadanía

EK\CV GAO-I-2016-03921

Bulegoan (udaletxearen beheko solairuan) eta webgunean eskuratu daiteke. 2016ko uztailaren 22ra artekoa izango da aurkezteko epea.

Egitezko okerrak atzematen badira, edozein unetan zuzendu ahal izango dira eskaerak aurkezteko epearen barruan, ofizioz hala nola interesatuak egindako eskariz.

*Bosgarrena. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa betetzea.*

Aukeraketa-prozesu hau publikotasun-printzipioak gidatzen du; beraz, prozesuan parte hartzen duten pertsonek onartu egiten dute euren eskabideetan Eibarko Udalari ematen dizkioten datu pertsonalak tratatzea, aukeraketa-prozesuaren emaitza partzialak eta behin betikoak buletin ofizialetan, iragarki-tauletan, webgunean eta beste hedabide batzuetan argitara emateko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, aukeraketan parte hartzeko eskabidean emandako datu pertsonalak tratamendu automatizatua jasoko dute, eta Eibarko Udalak behar bezala baimenduta dauzkan fitxategietan jasoko dira.

Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi zaizkio, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko beharrezkoak diren segurtasun neurri guztiak dituzte. Datu horiek udal kudeaketan bakarrik erabiltzeko izango dira; hala ere, beste administrazio publiko batzuei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie datuok abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitako kasuetan. Identifikaziorako datuak, eta hizkuntza-eskakizunak edo horien baliokideak egiaztatzeari dagozkion datuak, IVAPi eta HABEri lagako zaizkie, eskaeretan aipatu diren datuak erakunde horien hizkuntza-eskakizunen erregistroko datuekin egiaztatu ahal izateko.

IT txartelen kasuan, Udalak Tenaliari lagako dizkio datuak, hark egiazta ditzan.

Edozelan ere, eskabidea sinatzeak esan nahi du eskabidea egin duena jakinaren gainean geratu dela eta baimena ematen duela bere datuak tratatzeko.

Gogorarazten dugu emandako datuak eskuratzeko aukera dutela izangaiek, bai eta, hala badagokio, datuok zuzentzeko, aurkatzeko edo ezeztatzeko aukera dutela ere, aipatutako legeak ezarritako eran; horretarako, Eibarko Udaleko Tratamenduaren Arduradunari idatzizko komunikazio bat bidali behar zaio helbide honetara: Untzaga plaza 1 – 20600 Eibar (Gipuzkoa). Datu hauxek bidali behar dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, zer eskatzen den, eguna, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

*Seigarrena. Hautagaiak onartzea.*

Aurrekoa amaitu ondoren, Alkatetzak ebazpena emango du, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak onartzeko, eta zerrenda horiek Eibarko Udalaren iragarki-taulan eta Udalaren webgunean jarriko dira. Erreklamazioetarako eta eskaeretan egindako okerrak konpontzeko, 10 laneguneko epea izango da.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrenda horiek, besterik gabe, behin betiko zerrenda bihurtuko dira. Erreklamaziorik badago, horiek onartu edo baztertuko dira behin betiko zerrendei onespena emango dien beste ebazpen batean, eta zerrendak aurretik adierazitako modu berberean argitaratuko dira. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Alkatetzak onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onartu, eta argitaratu egingo du Udalaren iragarki taulan eta haren.

Era berean, ebazpen horretan bertan agertuko da Epaimahai Kalifikatzaileko kide titular eta ordezkoen izendapena.

del Ayuntamiento de Eibar (planta baja) y en la página web. Se presentarán hasta el 22 de julio de 2016.

Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán subsanarse en cualquier momento dentro del plazo de presentación de instancias, de oficio o a petición del interesado.

*Quinta. Cumplimiento de la ley orgánica de protección de datos de carácter personal.*

El presente proceso selectivo está regido por el principio de publicidad por lo que la participación en el mismo supone la aceptación por parte de las personas aspirantes del tratamiento de sus datos de carácter personal que faciliten al Ayuntamiento de Eibar en su solicitud, para las publicaciones en boletines oficiales, tablones de anuncios, página web y otros medios de difusión de los resultados parciales y definitivos del proceso selectivo.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, los datos de carácter personal obtenidos en la solicitud de participación en la selección serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Eibar.

Los ficheros han sido notificados a la Agencia Vasca de Protección de Datos y cuentan con las medidas de seguridad necesarias para garantizar la total seguridad de los datos. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Los datos de identificación y los relativos a la acreditación de perfiles lingüísticos o sus equivalentes serán objeto de cesión al IVAP y HABE, con el fin de verificar en el registro de acreditación de perfiles lingüísticos los datos de acreditación alegados.

En el caso de las IT txartelas, el Ayuntamiento cederá su datos a Tecnalia para su comprobación y verificación.

En cualquier caso, la suscripción de la solicitud implica que la persona solicitante resulta informada y da su consentimiento al tratamiento de sus datos.

Le recordamos la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos por la Ley indicada, dirigiendo una comunicación escrita al Responsable de tratamiento en el Ayuntamiento de Eibar a la siguiente dirección: plaza Untzaga 1 – 20600 Eibar (Gipuzkoa), con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.

*Sexta. Admisión de las/os aspirantes.*

Concluido lo anterior, la Alcaldía dictará Resolución aprobando las listas provisionales de admitidos/as y excluidos/as, que serán expuestas en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento y Web municipal concediéndose un plazo de 10 días hábiles para reclamaciones y subsanar errores en las instancias.

Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se producen reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva Resolución por la que se aprueben las listas definitivas, que se harán públicas, asimismo, en la forma indicada. Finalizado el plazo de presentación de instancias, la Alcaldía aprobará y publicará la lista provisional de aspirantes admitidas/os y excluidas/os en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en su página web.

Asimismo, en dicha resolución se indicará la designación de los miembros titulares y suplentes del Tribunal Calificador.

EK\CV GAO-I-2016-03921

*Zazpigarrena. Epaimahai Kalifikatzaile.*

Proben Epaimahai Kalifikatzaileko kideen izendapena iragarki oholean eta udal-webgunean argitaratuko da. Epaimahaikideei aplikatzekoak izango zaizkie Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legearen 28. eta 29. artikuluko abstenitzeko eta errekusatzeko kasuak.

Honela osatuko da epaimahaia:

— Mahaiburua: Eibarko Udalaren antolaketa eta langileriako zuzendaria, edo berak izendatutako ordezkoa.

— Mahaiko kideak: Eibarko Euskal Euskaltegiko bi irakasle, eta HABEren ordezkari bat.

— Idazkaria: Langileria-saileko funtzionario bat, edo berak izendatutako ordezkoa (honek hitzez baina botorik gabe jardungo du).

Epaimahaien jardunbidea Administrazio Prozedurako Legeak kide anitzeko organoei buruz agintzen duenari lotuko zaio.

Epaimahaia eratzen denetik, haren jardunbideak balio izateko, epaimahaikideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengo bidez hartuko dira. Epaimahaiburuan dagoenaren kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira berdinketak.

Epaimahaiburua (edo haren ordezkoa) bertaratu ez bada, gaixo dagoelako, bere kargua hutsik dagoelako edo tartean beste lege-arrazoiren bat dagoelako, hierarkian maila gorena duen, antzinatasun handiena duen edo adinez zaharrena den epaimahaikideak hartuko du haren lekua, esandako hurrenkera horretan.

Idazkari titularraren edo haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixo badago edo titularrari zein ordezkoari eragiten dien legezko bestelako arrazoiren bat badago, epaimahaikideen gehiengoaren erabakiz aukeratzen den kideak beteko du haren kargua.

Epaimahaiak autonomia osoz jardungo du, eta bera izango da prozeduraren gardentasunaren eta objektibotasunaren, eta deialdiko oinarriak zorrotz betetzearen erantzulea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, batetik, oinarri hauek aplikatzerakoan sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta, bestetik, deialdia behar bezala garatzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu; horretarako, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan erabili beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Epaimahai kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egitea dagokion organoarentzat, baina horrek ez du esan nahi organo horrek erabakia berrikusi ezin dezakeenik indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak aurreikusitakoaren arabera.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabehera guztietarako, epaimahaiak honako helbide hau izango du: Eibarko Udaletxea, Langileria Saila, Untzaga plaza z/g, 20600 Eibar.

*Zortzigarrena. Meritu-balorazioa.*

Epaimahaiak ondorengo meritu hauek baloratuko ditu, baldin eta izangaiek eskabidean alegatu eta egiaztatu badituzte oinarri hauetan xedatutakoaren arabera:

1. HABEk ziurtatutako esperientzia irakaskuntzan: 10 puntu gehienez.

a) Euskaltegi publikoetan irakasle-lanetan aritutako 100 eskola-orduko 0,3 puntu.

b) Beste euskaltegi homologatu edo libreetan irakasle-lanetan aritutako 100 eskola-orduko 0,2 puntu.

*Séptima. Tribunal Calificador.*

El Tribunal calificador de las pruebas estará compuesto por miembros cuya designación será publicada en el tablón de anuncios y web municipal. A los/as miembros de los Tribunales les serán de aplicación los supuestos de abstención y recusación de los artículos 28 y 29 Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Su composición será la siguiente:

— Presidente/a: La directora de organización y personal del Ayuntamiento de Eibar o persona en quien delegue.

— Vocales: Dos profesoras del Eibarko Udal Euskaltegia y un/a representante de HABE.

— Secretario/a: Una funcionaria del área de personal o persona en quien delegue (con voz y sin voto).

La actuación de los Tribunales se ajustará a las disposiciones que sobre órganos colegiados están contenidas en la Ley de Procedimiento Administrativo.

A partir de su constitución, el Tribunal, para actuar válidamente, requerirá la presencia de la mayoría de sus miembros.

Los acuerdos del Tribunal se adoptaran por mayoría de votos. Los empates se resolverán por el voto de calidad de quien ejerza la presidencia.

En caso de vacante, ausencia, enfermedad del/la Presidente/a u otra causa legal que afecte a éste/a y su suplente, serán sustituidos por la persona vocal de mayor jerarquía, antigüedad y edad, por este orden entre las personas miembros del Tribunal.

La sustitución del/la Secretario/a, en los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte a éste/a y su suplente, recaerá en cualquier otro de los miembros del Tribunal elegido por acuerdo mayoritario de éste.

El Tribunal actuará con plena autonomía funcional, siendo responsable de la transparencia y objetividad del procedimiento y del estricto cumplimiento de las bases de la convocatoria.

Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, resolverá todas las dudas que surjan en la aplicación de las presentes bases y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de la convocatoria, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en ellas.

Las resoluciones del Tribunal Calificador serán vinculantes para el órgano al que competa el nombramiento, sin perjuicio de que éste pueda proceder a su revisión conforme a lo previsto en la vigente Ley de Régimen Jurídico de Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

A los efectos de comunicaciones y demás incidencias, el Tribunal Calificador tendrá su domicilio en el Ayuntamiento de Eibar, área de Personal, Plaza Unzaga s/n 20600.

*Octava. Valoración de méritos.*

El Tribunal valorará los siguientes méritos, siempre que hayan sido alegados y acreditados en la instancia de acuerdo con lo establecido en estas Bases.

1. Experiencia docente certificada por HABE: máximo 10 puntos.

a) 0,3 puntos por cada 100 horas lectivas de trabajo como profesor/a en euskaltegis públicos.

b) 0,2 puntos por cada 100 horas lectivas de trabajo como profesor/a en otros euskaltegis homologados o libres.

EK\CV GAO-I-2016-03921

Aurkeztutako dokumentazioan horiek baino ordu kopuru txikiagoak adieraziko balira, proportzionalki baloratuko dira.

Bekak eta lanbide-praktikak ez dira kontuan hartuko.

2. Titulu akademikoak:

a) Euskal Filologiako Gradu edo Lizentzia edo Euskal Ikasketetako Gradua gehi Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate-Masterra: 4 puntu.

b) Irakasle-ikasketak Euskal Filologian: 3 puntu.

c) Euskal Filologiako Gradu edo Lizentzia edo Euskal Ikasketetako Gradua: 2 puntu.

d) Irakasle-ikasketetako Diplomatura edo Gradua haurhezkuntzan. 1 puntu.

3. Helduei euskara irakastearekin zerikusi duten HABEk, EHUk, UNEDek, UEUak edo IVAPek emandako ikastaroak; 2006ko urtarriletik aurrera egindakoak baino ez dira kontuan hartuko: 3 puntu gehienez.

a) 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroak, 0,2 puntu.

b) 11tik 50 ordura bitarteko ikastaroak, 0,3 puntu.

c) 50 ordutik gorako ikastaroak, 0,5 puntu.

Titulu akademikoren bat lortzeko ikasketa-plan baten zati diren ikastaroak ez dira baloratuko.

Prestakuntza-ikastaroetako egiaztagiriek horien iraupena zehazten ez badute, ez dira kontuan hartuko.

4. Informatika-ezagutza: 2 puntu gehienez.

a) IT txartelaren egiaztagiriak, 0,5 puntu bakoitzeko: 1 puntu gehienez. Honako IT txartelak baino ez dira hartuko kontuan: Word eta Excel 2010eko bertsiotik aurrera, eta Open Office 3.0. Programa bakoitzeko IT txartela bakarra baloratuko da; hau da, Oinarrizko Word-en ITa aurkeztuz gero, Word Aurreratuarena ez da baloratuko.

b) Moodle plataformari buruzko ikastaroak, 0,5 puntu bakoitzeko: 1 puntu gehienez.

Aipatutakoez gain ez da beste agiririk edo ikastarorik baloratuko.

*Bederatzigarrena. Merituen kalifikazioa, epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea.*

Lehiaketan lortutako puntu guztiak batu eta horixe izango da izangai bakoitzaren azken kalifikazioa.

Merituen kalifikazioa amaitzean, epaimahaiak jendaurrean jarriko du iragarki-taulan eta Udalaren webgunean.

Hiru laneguneko epea ezarriko da, epaimahaiaren erabakia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, lehiaketaren puntuazioa berrikustea eskatzeko edo erreklamazioak jartzeko horren kalifikazioen gainean.

Lehiaketan lortutako puntuazioen batuketak ezarriko du lan-poltsako behin betiko sailkapen-ordena.

Berdinketarik gertatuz gero, honako irizpide hauen arabera ezarriko ordena:

1. Euskaltegi publikoetan irakasle-lanetan esperientziari dagokionez, puntuaziorik altuena lortu duenaren alde.

2. Beste euskaltegi homologatu edo libreetan irakasle-lanetan esperientziari dagokionez, puntuaziorik altuena lortu duenaren alde.

Si la cantidad de horas de la documentación presentada fuera menor que las mencionadas se calificarán proporcionalmente.

Se excluyen becas y prácticas profesionales.

2. Títulos académicos:

a) Grado o Licenciatura en filología vasca o grado en estudios vascos más CAP o Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanzas de Idiomas: 4 puntos.

b) Magisterio por la rama de Filología Vasca: 3 puntos.

c) Grado o Licenciatura en filología vasca o grado en estudios vascos: 2 puntos.

d) Diplomatura magisterio o grado en educación infantil: 1 punto.

3. Cursos relacionados con la enseñanza del euskara de adultos impartidos por HABE, UPV, UNED, UEU o IVAP; incluyéndose sólo los realizados desde enero de 2006 en adelante: máximo 3 puntos.

a) Cursos de duración inferior a 10 horas, 0,2 puntos.

b) Cursos de entre 11 y 50 horas, 0,3 puntos.

c) Cursos de duración superior a 50 horas, 0,5 puntos.

No serán objeto de valoración los cursos que formen parte de un plan de estudios para la obtención de una titulación académica.

No se tomarán en consideración aquellas acreditaciones documentales de los cursos de formación en las que no conste su duración.

4. Conocimientos informáticos: máximo de 2 puntos.

a) Acreditaciones de IT txartela, a razón de 0,5 puntos por cada una: máximo 1 punto. Sólo se valorarán las siguientes IT Txartelas: Word, Excel en versión de 2010 o posteriores y open office 3.0. Sólo se valorará una IT txartela por cada programa, es decir, si se presenta la IT de Word básico, no se valorará la de Word avanzado.

b) Cursos de plataforma Moodle, a razón de 0,5 puntos por cada uno: máximo 1 punto.

No se valorarán ningún otro certificado o curso diferente de los aquí recogidos.

*Novena. Calificación de los méritos, propuesta del Tribunal y presentación de documentos.*

La calificación final de cada aspirante estará constituida por la suma de las puntuaciones obtenidas en el concurso.

Terminada la calificación de los méritos, el Tribunal hará público en el tablón de anuncios y en la web del Ayuntamiento.

Como norma general, se establecerá un plazo de tres días hábiles, contados desde la fecha de publicación de la resolución del tribunal, para solicitar la revisión de puntuación del concurso o para presentar reclamaciones sobre calificaciones del mismo.

El orden de clasificación definitiva de la bolsa de trabajo vendrá determinado por la suma de las puntuaciones obtenidas en el concurso.

En caso haber un empate, el orden se establecerá atendiendo a los siguientes criterios:

1. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en la experiencia como profesor/a en euskaltegis públicos.

2. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación como profesor/a en otros euskaltegis homologados o libres.

EK\CV GAO-I-2016-03921

3. Helduei euskara irakastearekin zerikusi duten ikastaroei dagokienez, puntuaziorik altuena lortu duenaren alde.

4. Oraindik ere berdinketa jarraituko balu, izangairik gazteenaren alde.

Lehiaketatik irteten den lan-poltsa indarrean egongo da harik eta deialdi berri bat egin arte, eta indarrik gabe utziko ditu lanpostu hori betetzeko Eibarko Udalak ordura arte egin dituen beste prozesu edo aukeraketak.

Sailkapen-ordena aldatu ahal izango da, horretarako lan-poltsak kudeatzeko araudirik onartzen bada, horretan ezarritako kasuetan eta moduan.

Lan-poltsaren bidez kontratatutako pertsonek probaldi bat gainditu beharko dute.

Probaldia gaindituko ez balu, izangaiak kontratatzeko eskubide guztiak galduko lituzke, eta lan-poltsatik kanpo geratuko litzateke.

Kontratatutako izangaia behartuta egongo da Udalbatzak komenigarritzat jotzen dituen prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak egitera, bete beharreko lanpostuko eginkizunei lotutako gaietan beharrezko gaitasuna edo ezaguera lortzeko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 28. artikuluak ezartzen duenari jarraituz.

*Hamargarrena. Deialdiaren inpugnazioa.*

Interesdunek inpugnatu egin ditzakete deialdia, haren oinarriak eta haien ondoriozko eta epaimahaiaren jardunbidearen ondoriozko ekintza administratiboak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak dioen kasuetan eta moduan.

Eibar, 2016ko maiatzaren 30a.—Miguel de los Toyos Nazabal, alkatea. (3921)

3. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en los cursos relacionados con la enseñanza del euskara de adultos.

4. Si aun así persistiera el empate, a favor de la persona candidata más joven.

La bolsa de trabajo resultante de este concurso, estará en vigor en tanto se realice una nueva convocatoria y dejará sin efectos las de otros procesos o selecciones realizados hasta la fecha por el Ayuntamiento de Eibar, para cubrir el referido puesto.

El orden de clasificación podrá ser alterado en los casos y forma establecidos en la normativa de gestión de bolsas de trabajo que pueda aprobarse al efecto.

Las personas contratadas mediante esta bolsa de trabajo deberán superar un periodo de prueba.

Si la persona aspirante no superase el período de prueba, perderá todos los derechos a su contratación y será excluida de la bolsa de trabajo.

La persona aspirante que haya sido contratada quedará obligada a seguir los cursos de formación o perfeccionamiento que la Corporación estime convenientes, tendentes a lograr la necesaria aptitud o los debidos conocimientos en las materias afines a las funciones propias de la plaza que deba desempeñarse, de conformidad con lo establecido en el artículo 28 de la Ley 6/89, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

Décima. Impugnación de la convocatoria.

La convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de aquellas y de la actuación de los Tribunales, podrán ser impugnadas por las personas interesadas en los casos y en las formas previstas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Eibar, a 30 de mayo de 2016.—El alcalde, Miguel de los Toyos. (3921)

EK\CV GAO-I-2016-03921